



## Ibilgailu elektrikoentzako kargagailuen udal-sarea martxan jartzea

Legazpiko 2024-2030 Klima eta Energiaren Udal Planak ibilgailu elektrikoentzako kargagailuen sare publiko bat garatzea aurreikusten du bere ekintzen artean:

- 3. lerroa: mugikortasun iraunkorra
  - 3.1 Programa: Mugikortasun elektrikoa bultzatzea
    - 3.1.1. ekintza: ibilgailu elektrikoetarako kargagailuen sare publiko bat ezarri eta kudeatu

Ekintza honen helburua da gure udalerrian mugikortasun iraunkorra eta berotegi-efektuko gasik gabea sustatzea. Gure ingurumena gehiago errespetatuko duen garraio-eredu baten aldeko apustu garbia da, eta zuzenean laguntzen du energia-trantsizioan, gure gizartearen deskarbonizazioaren bidez, klima-aldaketaren aurkako politikekin bat etorriz.

Gizarte-dimentsioa ere badu, Gobernu Taldearen borondatea baita Legazpiko herritarrei karga-sare horretarako sarbidea erraztea. Horrela, trantsizio justu baten helburuan ere aurrera egiten da, eraldaketa energetikoaren prozesua pertsona guztientzat ahalik eta irisgarriena eta bidezkoena izango dela bermatuz.

Hori dela eta, ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak jarri nahi dira udalerriko hainbat gunetan, eta gune horiek energia elektrikoa hornitzea lortu nahi da, Udalbatzak ezarritako prezio publikoaren mugapean, zerbitzu irisgarria ziurtatuz.

Memoria honek balio dezala dagokion espedienteari hasiera emateko eta prezio publiko bat kalkulatzeko, indarrean dagoen legediaren arabera.

Legazpi

2025eko otsailaren 25a



## **Puesta en marcha de una red municipal de cargadores para vehículos eléctricos**

El Plan municipal de Clima y Energía 2024-2030 de Legazpi contempla, entre sus acciones el desarrollo de una red pública de cargadores para vehículos eléctricos:

- Línea 3: Movilidad sostenible
  - Programa 3.1: Impulsar la movilidad eléctrica
    - Acción 3.1.1: Implantar y gestionar una red pública de cargadores para vehículos eléctricos

Esta acción tiene como objetivo impulsar en nuestro municipio una movilidad sostenible y libre de emisiones de gases de efecto invernadero. Se trata de una clara apuesta por un modelo de transporte que respete más nuestro medioambiente, y que contribuye directamente a la transición energética mediante la descarbonización de nuestra sociedad, en coherencia con las políticas de lucha contra el cambio climático.

También tiene una dimensión social, ya que es voluntad del Equipo de Gobierno facilitar a la ciudadanía de Legazpi el acceso a esta red de recarga. De este modo, se avanza también en el objetivo de una transición justa, garantizando que el proceso de transformación energética sea lo más accesible y equitativo posible para todas las personas.

Por ello, se pretende instalar puntos de recarga de vehículos eléctricos en diferentes zonas del municipio y que estos puntos suministren energía eléctrica condicionada bajo la limitación de un precio público fijado por el Pleno Municipal, asegurando así un servicio accesible.

Que sirva esta memoria para dar inicio al expediente correspondiente y al cálculo de un precio público, de acuerdo con la legislación vigente.

Oscar Valbuena Pascual

Garapen Iraunkorrekota eta Trantsizio Energetikoko zinegotzia  
Concejal de Desarrollo Sostenible y Transición Energética